

Futbola, telebista eta auto beltzak

Imanol Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1999



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpau*



Futbola, telebista eta auto beltzak

Imanol Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia 12. ipuin lehiaketa

1999

Zumaiako onenaren saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Imanol Azkue Ibarbia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Ikusi orduko maiteminduta geratu zen. Seko gainera, ordura arte inoiz ez bezala.

Akordatzen naiz noiz eta nola ikusi nuen lehen aldiz. Ez zait berehalakoan ahaztuko. Duela sei hilabete-edo Salamancaren aurkako partidua genuen, han. Etxean jokatzeko genuenean Anoetara joaten nintzen, goitik behera txuri-urdinez jantzita eta errearen bandera eskutan, behar bezala, gure taldea animatzera. Egia esan, horiek izaten ziren nire irtenaldi bakanetakoak, bi astetik behin-edo, eta beste ezer gutxitarako irteten nintzen etxetik. Kanpoan jokatzeko genuenean, ordea, aitak eta biok telebistaz ikusten genuen partidua, etxeko komedorean eserita. Beno, egia esan, eseri-eseri ez ginen egiten, horretarako aurretik zutik egon behar baitzen eta biok, bai aitak eta bai nik, egun osoak eta gau asko ematen baikenituen han egongelan eserita, ezertarako mugitu ere egin gabe, telebistari entxufatuta. Aita lehen bai, garai batean normal ibiltzen zen, egunez lan egiten zuen eta gauetan afalostean baino ez zuen telebista ikusten, baina istripua izanez geroztik burua pitzatuta geratu zitzaion eta ez da ezertarako gauza. Horixe. Bizirik irautea ez da gutxi bere kasuan, ez dauka inolako kezka edo zereginik, ez da arduratzen ezertaz eta landare bat bezala bizi da. Aitak, ordea, ez du urik behar, pastillak baizik, pare bat sei ordutik sei ordura, kolore eta tamaina guztietakoak, zuriak urarekin nahastuta, urdin argiak jan aurretik. Sendagileek errezetatu eta nik puntu-puntu ematen dizkiot, bere orduan, huts egin gabe, bakoitza noiz eman behar diodan ondo apuntatuta daukat-eta paper mutur batean. Pastillak hartuta hor geratzen da, tonto-tonto, telebistaren aurrean, baina hantxe egoten da ondoen. Horregatik, gure etxean telebista ez dugu ia inoiz itzaltzen, erre usaina hasten denean baino ez, eta orduan nahikoa lan izaten dut aita konbentzitzen. Esaten diot agoantatzeko pare bat ordu telebistarik gabe, bestela erre egingo zaigula eta ezin izango dugula aurrerantzean ezer ikusi. Baina beti izaten da orduantxe bere gustuko programaren bat, Toñita txotxola horren lehiaketa aspergarri hori, edo sugetzarren bat, edo auskalo beste zein. Beti egoten da ikusi nahi duen zerbait eta azkenean elkarrekin haserretuta bukatzen dugu. Horregatik, ahalik eta gutxien itzaltzen dut, ordu guztietan piztuta egoten da. Horrela, aita otzan-otzan eta gozo-gozo geratzen da. Nork esan, duela hamar edo hogeitun urte, horrela bukatuko zuenik. Ez dira pertsona berbera, ez, egongelako altzari bat dirudien agure hori eta garai batean ama astintzen zuen piztia.

Baina zertan ari nintzen? A, bai! Luzamenduak utzi eta noan harira!

Han geunden lehenengo partea noiz bukatuko, ni oso pozik, 0-1 irabazten ari ginela-eta. Aita, berriz, beti bezain axolagabe, ez da ezertaz enteratzen-eta. Arbitroak atsedenaldirako txilibitua jo orduko edari bila joan nintzen sukaldera, betikoa hartzera: nik zerbeza eta iturriko ura pastillazoarekin aitak. Bueltan hor nentorren presaka sofán jartzera eta hara non ikusi nuen telebistako pantaila oso-osorik betetzen zuela, ederra, piztia, liraina, sendoa, probokazio hutsa. Ia-ia erori zitzaizkidan eskuan neramatzan basoak. Telebista barrura salto egin eta hura besarkatzeko gogoá sentitu nuen, estu-estu hartzekoa, larru bigun gainean eseri eta abiaduraren bertigoan galtzekoa... Begiak irten beharrean jarri zitzaizkidan, harrituta, eta hasieran ozta-ozta jaurti nuen hitz ulertezinen bat, ezpain erdi irekien eta adur tartean. A zer karrozeria! A zer linea! A zer diseinua! Akordatzen naiz, ongi asko akordatu ere, burura etorrira, okurritu orduko zizelkatuz bezala esan nituen hitzak: "Kosta ahala kosta, baina auto hori neureganatu beharra daukat". Eta horretan eman nituen hurrengo orduak, egunak eta ahaleginak.

Izan ere, azken urteotan bi pasio baino ez baititut izan. Lehenengoa dagoeneko aitortu dizuet: futbola, edo hobeto esanda, Errealá. Bigarrena, berriz, autoak gidatzea. Beno, eta eguneko ordu guztietan ahalik eta telebista gehien ikustea ere bai, jakina. Baina hori pasioa baino gehiago beharra zela esango nuke, arnasa hartzea bezala.

Okurritzen zitzaidanean, ba, hori, di-da, aitaren autoa hartu eta errepidera irteten nintzen, berdín zuen egunez ala gaez, edozein momentutan eta barneko behar asegaitz batek deituta, gorputzak eskatzen zidanean. Kilometroak eta kilometroak egiten nituen, beti ere aurrera, ahal izanez gero ezertarako gelditu ere egin gabe eta inongo norabide jakinik gabe. Batzuetan saka eta saka ibiltzen nintzen, abiaduraren eta istripuaren mugan. Nola esango nuke? Herioren segaren aho gainean dantzan. Horixe da. Beste batzuetan, berriz, mantso-mantso joaten nintzen, inongo presarik gabe, gidatzea bera gozatuz. Aldartearen eta gorputzak eskatzen zidanaren arabera izan ohi zen. Eta oraingoan gorputzak eta gogoak auto hura lortzeko agintzen zidan, nola edo hala.

Telebistan ikusi nuenetik, hurrengo egunetan ez nuen beste ezer izan buruan, ditxosozko auto hura baino. Leku guztietan ikusten nuen, batzuetan ametsetan eta beste batzuetan benetan, eta silloian eserita telebistako iragarkia noiz azalduko amorratzen eta aztoratuta ibiltzen nintzen. Beti bezala zapping egin eta anuntzio hura ikusteko zortea nuenean benetan atsegingarria eta zoragarria zen, estasigarria. Ikuste hutsak hainbesteko plazera eragiten bazidan, zer izango ote zen bertan ibiltzea, esertzea, korritzea...

Baina inor ez zitzaidan etorriko autoa eskainiz, oparitzuz, eta banekien kotxea neureganatzeko promes hura egin erraz egin banuen ere, asko kostatuko zitzaidala betetzea. Eta hori baieztatzerakoan batez ere diru kontuak nituen gogoan. Zeren... ba bale, kontzesionariora joan, enkargatu eta denbora gutxira ekarriko zidaten neure ametsetako autoa, nik nahi nuen kolorekoa gainera (aitarena bezalakoa: beltz-beltza!). Baina nola ordaindu behar nuen? Nondik atera gutizia hura asetzeko 8 kiloak? Ze... Aurrezki kutxan ezer gutxi neukan aurreratuta, huskeria hainbeste zero biribil handirekin alderatuta. Garai batean izan nuen dirua, bai, orain baino askoz ere hobeto bizi ginenean, ama gure artean zegoenean eta aitak lan egiten zuenean, dirurik ez genuen falta. Baina pixkanaka-pixkanaka aurrezkiak desagertu egin ziren. Zer gertatu zitzaidan? Bada aurrezkien botilatik edan eta edan, berriz ere bete ezean

azkenerako agortu egin zela eta, egia esan, botila hura erdi hutsa zegoen, edo hobeto esanda agortzear, nik egindako itoginetik irteten zitzaion etengabeko ur jarioa zela-eta. Horregatik, beste baliabide batzuk aztertu beharra zegoen. Hasiera batean pentsatu nuen, gehiegi hausnartu gabe pentsatu ere, nire alferrikako gastu guztiak murriztuta zerbait aurreztuko nuela, posible izango nuela diru apur bat lortzea. Horretarako, handik aurrera desagerrarazi beharreko guztiak apuntatu nituen, zerrenda beltzean, letra larritan, kontzientziako karga handiagoa izan zedin: EZ GOSARIRIK, EZ AFARIRIK, BAZKALDU SOILIK. ARGIRIK ETA BEROGAILURIK EZ PIZTU. KOMUN PUBLIKOAK ERABILI... Baina Moisesen taula hartako hamargarren araua jartzerako konturatu nintzen alfer-alferrik ari nintzela. Asmoa ona zela, baina erabat hutsala. Alegia, neurri haiek guztiak bete eta ezer gastatu gabe ere huskeria aurreratuko nuela eta auto hura lortzeko urteak eta urteak beharko nituela. Komikietako Zipi eta Zaperen bizikleta etorri zitzaidan gogora, beti amesten eta lortzen ez zuten hura, aitak zatika-zatika behin gurpila eta hurrengoan eskulekua ematen ziena. Une batean pentsatu nuen (berriz ere alferrik) kalera irten eta eskura jartzen zitzaidan guztia lapurtzea, dena, adibidez jolasean zebiltzan haurren bizikletak, edo balkoietan lehortzen jarritako arropak, edo atsoen poltsak, edo elizetako limosnak. Baina kia, berehalakoan konturatu nintzen berriro ere ahalegin zimela izango zela, horrela ere ez nuela inola ere aurrera egingo eta ez nuela inoiz lortuko autoa. Eta une hartan behar nuen, ahalik eta lasterren. Ai, gure amak behin eta berriz esandakoa gogoratu nuen. Barbaridaderen bat egiten nionean, berdin txikitan edo handitan, Ai Tontolapiko halakoa esaten zidan, motza baino motzagoa nintzela errepikatuz, gauza onei zegokienez aitarengandik ezin zitekeela gauza handirik heredatu (eta Gurutze Santuaren egiten zuen), baina zerbait berea ere izan behar nuela eta ni sortu ninduten egunean (berriz ere Gurutze Santuaren) adimena banatzen zuen aingerua edo dena delakoa oporretan egongo zela, edo lotan, baina ez nuela zorte handirik izan banaketan, eta pedrea baino ez zitzaidala tokatu. Egia da, arrazoi zuen amak: batzuetan gauzez konturatzeko denbora puska bat behar izaten dut, badakit, beste gehienek baino gehiago. Eta orduan ere kostatu zitzaidan dirua lortzeari zegokionez nola jokatu behar nuen erabakitzea.

Lehendik ere baneukan kotxea, egia zen, aitarena, zaharra baina ederra, eta neraman bizimoduarekin ezin esan beste hura behar-beharrezkoa nuenik. Beno, egia esan, ez nuen batere behar, ez berria eta ez zaharra. Kapritxo zikin bat zen, aitor dezadan. Baina ezin al nuen amets egin eta neure burua han barruan imajinatu? Ilea gominaz blai atzerantz orraztuta, alkandora loredun kolore bizi-bizia jantzita, udako beroaren galdatak aire egokituaz gozaturaz, mantso-mantso guztiek ikusteko, edo orduko 150 km-ko abiaduran bihurtuak bi gurrpil gainean hartuz, ziztu bizian, inguruko diren eta ez diren guztiak aurreratuz eta gidari onenak bezala gidaturaz... Nor bizi da egunerokoarekin eta errealitatearekin bakarrik, amets egin gabe? Inor gutxi.

Nirea ez zen edozein modutako ametsa, ordea. Garesti samarra zen. Nondik atera behar nuen nik dirutza hura? Nola aberasten da jende arrunta egun batetik bestera? Bai, banekizkien erantzun batzuk behintzat. Motza naiz, baina hainbestearaino iristen naiz, zer uste duzue, ba. Adibidez, aberasteko batzuetan ezinbestekoa da izeba edo osaba dirudunen bat edukitzea, mahaspasa baino zimurtuagoa, eta gaixoaldi luze, neketsu eta astun baten ondoren milioi batzuen herentzia jasotzen da. Baina hori ez zen nire kasua, ez zegoen horrelakoen beldurrik. Beste batzuek, berriz, zazpi kandela pizten

dizkiote elizan amabirjinari edo santuren bati, santuaren izena zenbat eta arraroagoa eta luzeagoa hobe, eta kiniela edo bonolotoa itxura gabe egiten dute, eskuak dar-dar batean, diru harekin zer egingo duten estu-estu eginda eta bihotzekoak jota hiltzeko zorian. Baina aspaldi galdu nuen santuekiko eta zortearrekiko fedea. Beste batzuek, azkenik, izugarritzko atrakoa egitearekin amesten dute. Atrako garbia, odolik gabea. Bankura joan, egun onak eman eta milioiz betetako poltsak eskuan dituztela irten kanpora, txistua joz. Aberasteko era horiek gutxienez etorri zaizkizue burura, ezta? Ba horiek neuk ere banekizkien. Baina azken finean, ba al daukagu nola aberastu aukeratzetik? Nik aberasteko era seguru-seguru bakarra ezagutzen dut, eta hitzak hitz, mundu guztiak egiten duena egin nuen neuk ere: bankura joan nintzen bai, baina nik beraiei lapurtu beharrean haiek niri lapurtu zidaten. Eta, hori gutxi balitz, gainera, nik onartuta eta sinatuta, zortzi kiloko kreditua, etxea abal zela. Une hartan uste nuen, ordea, erabat konbentzitura gainera, merezi zuela zorretan sartzea. Nik gobernatzan ditudan ondasun guztiak bezala, etxea ere izatez aitarena zen, baina aspaldidanik zegoen nire izenean jarrita. Hain zuzen ere istripua izan zuenetik. Ondo gogoan dut garai hura. Ama hil zenean aitak egun asko eman zituen lorik egin gabe, poltsak ziruditen begi-zuloak aurpegian, alde batetik bestera oinak arrastaka eta animoa abailduta. Gero eta okerrago zebilen, nabarmena zen hori, baina lanean ez zioten baja ematen. Aita autobus urbanoko txoferra zen. Ezagutzen al duzue Florida kalea? Erdialdean dago, hiriko kale nagusietako bat da eta kafetegi eta terrazaz inguratuta dago. Ba, egun batean terrazetara joan zen, baina autobus eta guzti. Balazta sakatu beharrean azeleragailuari sakatzen zion eta espaloi gainean ehun metro pasa egin zituen hiriko banku ospetsu eta aberatsenen kristalezko fatxada bete-betean jo eta kristaleran sartuta geratu zen arte. Hango mahai eta jarleku txikitua, hango izua eta garrasia. Ibilbide odoltsu hartan zazpi lagun akabatu eta dozena bat zauritu zituen. Istripua izan eta ez zen autobusetik jaitsi ere egin, txoferraren lekuan jarraitzen zuen, azeleragailuari saka eta saka, handik kendu zuten arte. Berari ez zitzaion ezer ere gertatu. Beno, bai, gertatu zitzaion, egun hartan mututu egin baitzen eta harrezkero ez baitu taxuzko ezer esan. Haserretzen den batzuetan "borron-horron" egiten hasten da, ukabilak itxita, Pegaso autobus artikulatuaren motorra berriz ere martxan jarri eta inguruko guztiak harrapatu eta akabatu nahiko balitu bezala. Ederra da ba gure aita, irakiten jarri eta sumintzen denean.

Ba, hori, esaten ari nintzena. Azkenean bankura joan eta kreditua eskatzea erabaki nuen, etxea abaltzat jarrita. Gainera, nora joango eta aitaren autobusak txikitu zuen bulego berberera abiatu nintzen, nahita. Leihatilan kreditua eskatzera joan nintzela esan orduko dena ondo, dena erraztasunak, irribarrea eta losentxak. Zuzendari zuriak agurtzerakoan bizkarraldean kolpetxo batzuk jo zizkidan eta une batean iruditu zitzaidan amildegira bultzatzen ninduela. Banekien leporaino sartzen ari nintzela, beharbada neure buruari urka bilurra jartzen ari nintzaiola, agian ez neukala behar adinako baliabiderik diru hari buelta emateko, baina merezi zuela iruditu zitzaidan. Garaian garaiko pikuak, eta orain Mobatsu Fast Pumaren garaia zen. Gero gerokoak.

Autoa enkargatzearenak aitaren batean egin nituen, arratsalde hartan bertan. Gezurra dirudi diruak zenbat ate zabaltzen dituen. Kontzesionariora joan eta ikusmiran ibili nintzen, bueltaka kotxe artean nire zorioneko autoaren bila. Saltzailea hurbildu eta hasieran lehor hitz egin zidan, errezeloz beteta, ez zen fidatuko nonbait nire itxurarekin-edo, baina nire asmoak azaldu eta batez ere bankuko txekea erakutsi nionean dena zen irribarrea, zoriona eta poza.

Trago bat hartzera ere gonbidatu ninduen. Auto beltza nahi nuen, zegoen ilunena, baina ez zeukaten. Saltzaileak esan zidan bi aste zain egon beharko nuela zain beltza nahi izanez gero, baina hor neuzkala, baita ere, gorria, horia, berdea, zein baino zein ederragoak, eta bakoitzaren abantaila izugarriekin ni konbentzitzen ahalegindu zen. Baina nik ezetz, setatsu, ojo ibiltzeko nirekin, beltza nahi nuela eta kito. Paperak sinatu eta kanpora irten nintzen. Kaleko espaloi gainera iritsitakoan ukabilak itxi eta oihu egin nuen, pozarren. Gero eta gutxiago falta zitzaidan, gero eta gertuago nuen nire ametsetako autoa eskuratzeko eguna.

Ez ziren berehalakoan pasatu hamabost egun haiek, baina azkenean iritsi zen egun handia. Lortu nuen. Kontzesionariora iritsi eta ezin izan nien malkoei eutsi. Negar batean hasi nintzen kristaleraren bestaldean nire Mobatsu Fast Puma XR12 ikusi nuenean, berri-berria, beltz-beltza. Ingurura begiratu eta dena zen iluna. Saltzailea alboan jarri eta hitz egiten hasi zitzaidan kotxearen ezaugarriei buruz. Nori eta niri, berak baino hobeto zekizkienari! Eskua txapa gainean jarri eta basapiztia haren atzaparkada nabaritu nuen. Beroa eta garra zerion. Ahal nuen moduan albotik hizketan ari zitzaidan mandeulia uxatu eta auto barruan sartu nintzen. Zirrargarria izan zen benetan lehen kontaktua. Bolantea ukitzea, eserlekua egokitzea, ispiluak ongi jartzea. Giltzari eragin, azeleratu eta ahalik eta zarata handiena ateraz kanpora irten nintzen, kontzesionarioko kristala puskatuz. "Ondo aitaren semea haiz", pentsatu nuen neure artean.

Hurrengo egunak oso zoriontsuak izan ziren. Autoa hartu eta hor ibiltzen nintzen atzera eta aurrera, kilometroak egin eta kilometroak egin. Aspaldi ez bezala, inoiz gutxitan bezain zoriontsu sentitzen nintzen. Beno, ezin konparatu ama eta Ane gurekin bizi ziren garaiarekin. Orduan benetako familia osatzen genuen eta desberdina zen. Garai hartan bai bizi nintzela ongi eta zoriontsu. Edo hori da nire irudipena, behintzat. Ume mokoan nintzen garaiak ari naiz. Sarritan oroitzen naiz denbora hartaz, orain ditudan hogeita bien leihotik. Sasoi hartan, orain ez bezala, etorkizunari begira ilusioa eta itxaropena piztuta nituen, ez nekien zer gertatuko zen hurrengo egunean. Baina orduan ere, orain bezala, zoriona eten egin behar. Egun batetik bestera dena aldatu zen. Laino baten gainean bezala zeruan bezala goi-goian bizi ginen, pozik, eta bat-batean lurraren kontra amildu eta lehertu egin ginen. Hara, kontatuko dizuet. Goiz batean aita eta ama zeharo aztoratuta nabaritu nituen, etxetik irten eta sartu, nor gehiago mugitu lehian arituko balira bezala, telefonotik etengabe hizketan, urduri. Saiatu nintzen jakiten zer gertatzen zen, baina ez zidaten ezer esaten. Kontu handiz saihestu egiten ninduten, pasilloaren erdian jarritako eta estropezu eragiten zuen altzari bat banintz bezala. Aneren logelan sartu eta falta zela ikusi nuen. Are gehiago: armairu barruko arropa guztiak ere falta zirela eta bidaiatzeko maleta ere bai. Harrezkerotik, ez dakit ezer ere gure arrebari buruz. Kosta egiten zait haren aurpegiak akordatzea, haren mugitzeko eraz, gure etxetik Aneren argazki eta oroitzapen guztiak desagertu egin baitziren, inoiz alaba edo arrebarik izan ez bagenu bezala. Ama soineko ilunak janzen hasi zen, denborak aurrera egin ahala gero eta beltzagoak, eta apenas zabaltzen zen leihorik eta sartzen zen argirik gure etxean. Hala ere, aita eta biok bizimodu normala egiten saiatu ginen, denboraldi batean behintzat, ezer gertatu ez balitz bezala. Baina ez zen erraza. Aita goizean goiz joaten zen lanera eta gero eta beranduago itzultzen zen, sarritan arratsaldea gau bihurtutakoan. Maiz egun asko iragaten ziren nik ikusterako eta, egia esan, askotan nahiago nuen batere ez ikustea, haren begi galdu eta iheskorak, oin

gainean balantzaka zebilen nahigabe hura, alkohol kiratsa zeriola. Aitarentzat etxea ziega ilun bilakatu zen eta gero eta laburragoak ziren bere egonaldiak. Nik, berriz, denboraldi batean eskolara joaten jarraitu nuen egia esan ez dakit zergatik edo zertarako, baina hara joaten nintzen zintzo-zintzo astegun guztietan. Baina nire aisialdia eta ahal nituen ordu guztiak amarekin eta telebista ikusten ematen nituen, niretzat munduan besterik ez balego bezala, ama eta telebista. Amatxoren isiltasun nabarmen eta ozena entzuten, haren begirada galduari so eginez, alabaren hutsunea nola edo hala betetzen lagunduko niolakoan. Bi urte pasatu genituen horrela. Baina egun batean amak etxeko leiho guztiak zabaldu zituen, armairuko soinekorik argiena jantzi eta etxeko atea itxi ere egin gabe kalera egin zuen, nik atzetik orpoz orpo jarraitzen niola. Oinez eta oinez, tren geltokira iritsi zen eta ni bere atzetik. Agian Anek ere hango trenen bat hartuko zuen, gu utzi eta hiritik alde egitea erabaki zuenean. Megafonia ozen eta zaratsutik trena irteteko minutu bakarra falta zela abisatu zuten. Amak pauso geldiez nasaraino iritsi eta atzerantz jiratu zuen burua, nire begien bila, edo hori iruditu zitzaidan, behintzat. Irribarre egin eta urruneko hiri batera zeraman trenerantz egin zuen, bidai luzeenera... burdinazko gupil azpira. Kurrixka bat entzun zen lehenengo, trenaren frenazoa ondoren. Jendea korrika hasi eta batzuk ama eroritako leku inguruan makurtu ziren, tren azpira begira. Hasierako presak eta nerbioak baretu egin ziren. Ni ez nintzen mugitu ere bitartean, zutik. Gero etxera itzuli nintzen, bakarrik.

Gertaera hark markatuta utzi ninduen, baina are gehiago eragin zuen aitarengan. Harrezkero, zenbat negar egin duen aita gizagaixoak. Ezkondu eta elkarrekin bizitzen hasi eta ez dakit noiz hasiko ziren tratu txarrak, baina pentsatzen dut ez zela denbora askora izango, hasieran ezkutuan eta gero agerian, berdin gure aurrean, edozein arrazoi aitzakiatzat hartuta: Errealak galdu egin zuela eta aibazan belarrondokoa, edo bazkaria hotza zegoela eta nik berotuko dinat bizkarra. Eta gure ama beti ere ixo, agoanta. Zer izaten den, ordura arte gure amari ez zion inolako begirunerik, atariko haizea balitz bezala tratatzen zuen, hutsaren hurrengo, eta falta zenean orduantxe akordatu zenbat maite zuen, zenbateraino behar zuen. Niri berriz, berdin zitzaidan, ez zitzaidan askorik inporta nire inguruan gertatzen zena. Orduan ez bainuen sentimendurik. Esan nahi dut berdin zitzaidala baten pena eta bestearen negarra. Amak esaten zidan, bai, gezurra zirudiela, baina zakurrek ere ni baino bihozberagoak zirela. Lehenago irtengo zitzaiola malkoa harri kozkorrari niri baino. Eta horretan ere erdi-erdian asmatzen zuen. Haur bat negarrez ikusteak ez baitzidan zimikorik egiten bihotzean, ez baitzidan gogoa batere uzkuratzen. Zer nintzen, ba, gogorra ni!

Baina gauzak aldatu egiten dira. Harri kozkor gogorrek ez dute negarrik egiten, baina haiek ere ederki asko biguntzen dituzte denborak eta urak. Eta harriak bezala, ni ere ederki melatu naute urteek eta gertaerek, batez ere azkenaldian izandakoek.

Izan ere, duela oso gutxira arte nola ibiltzen nintzen ikusiz gero, lotsaizun apur bat ere sentitzen dut: ondoan gizaki gutxi ez eta auto batez maiteminduta, ezertarako gauza ez den aitaren kargu eta egun guztian etxe zuloan sartuta. Ezinbestekoa zenean baino ez bainintzen irteten etxetik, eta garai batean ezinbestekoa, nire kasuan, Errealaren partiduak eta aitaren autoarekin irtetea zen, besterik ez. Eguneroko bizimodua egiten lrenek laguntzen zigun eta digu, Udalak bidaltzen digun gizarte laguntzaileak. Astean hirutan etorri eta etxea garbitu, janaria prestatu eta kanpoan gertatzen

denaren berri ematen digu. Hain zuzen ere, berak ekartzen zidan Marca, egun bateko atzerapenarekin, bere senarrak irakurritakoan. Horri esker erabat eguneratuta egoten nintzen Errealta eta futboleko kontuen gainean.

Egia da, bai, gauzak asko aldatu zirela autoa neureganatu nuenetik. Izan ere, autoa baino ez bainuen buruan eta bihotzean. Aitak pentsioa noiz kobratuko zain egoten nintzen, diru apur horrekin autoan hobekuntzak egiteko. Lehenengo, bizitzeko behar-beharrezkoa genuena apartatu eta gainerakoa autorako gordetzen nuen. Bankuko kreditua, berriz, popatik hartzera. Ordurako zuzendari zuria belzten ere hasiko zen, ez nuela ordaintzen-eta, baina zihoala antzarrak ferratzera. Etor zedila nahi bazuen diru bila.

Gertatu zitzaidan, ordea, autoarekin gero eta ordu gehiago ematen nituela eta etxera ez nintzela ia azaldu ere egiten. Juxtu-juxtu joaten nintzen aitari pilulak ematera, eta berriz ere kalera irteten nintzen, presaka demonio, autora. Kotxe barruan egiten nuen nire bizimodua. Berdin zuen martxan ibili edo aparkatuta egon, kuestioa zen auto barruan egotea eta bion artean ezarritako harreman hartaz ahalik eta gehien eta sakonkien gozatzea. Eserlekuan jarri eta orduak eta orduak ematen nituen, kanpoan zer gertatzen zen batere inporta gabe. Berdin zitzaidan euri zein eguzki, gau zein egun. Azkenerako lo ere bertan egiten nuen. Pentsa zenbaterainokoa zen auto harenganako obsesioa. Lau metro karratuko nire mundu txiki hartan izugarritzko plazera sentitzen nuen eta han baino ez nuen aurkitzen bizitzeko adorea. Ez pentsa, ordea, beti egonean egoten nintzenik, ezer ere egin gabe. Hau aldatu eta hura hobetu, hau kendu eta hura jarri ibiltzen bainintzen. Hainbeste begiratu eta hainbeste begiratu, beti ikusten nuen detaileren bat hobetzeko. Horrela, lehenengo espolierrak eta aleroiak jarri nizekion kanpoaldean eta autoa hegazkin bihurtu zen. Hura bai aerodinamikoa! Gero, berriz, suspentsio berriak jarri nizekion eta autoa altxatu egin nuen. Nirean posible zen zigarro oso-oso ahotik atera gabe erretzea, errautsa arrastorik lurrera erori ere egin gabe. Jarlekuak ere aldatu egin nizekion eta Decaroak jarri (izena prezioarengatik ote?). Oraindik, ordea, konforme ez eta gurpil zabalagoak jarri nizekion, asfaltoari hobeto atxikitzeko, eta aleaziozko llantak ere bai, are itxura deportiboagoa izateko. Berez ekarri zuen musika aparailuarekin gustura ez eta Alpinea jarri nion, dendan aurkitu nuen onena eta indartsuena, garestiena, musika entzuteko ez ezik, futbol partiduak bertatik jarraitzeko ere bai. Autoa egunero garbitzen nuen, ur eta xaboiak, eta gero trapu leun-leun batez lehortu, baita behealde ere. Hautsik txikiena ere kentzen nion, barrukoa eta kanpokoa. Eta erruki norbait gainean apoiatuta ikusten banuen. Lehenengo gauza paparretik heldu eta astindua emango nion, hurrengorako lezioa ikas zezan. Horrelakoa nintzen ni garai hartan.

Orduan gertatu zen gertatu beharrekoa nire zorionaren haria eten zuena. Eguraldi kaskarra genuen eta horregatik erne nindoan, bestetan baino motelago. Dena neukan ondo kalkulatuta: bihurgunean zenbateko abiaduran sartu behar nuen (120ra-edo joango nintzen, gehiagora ez), bolantearen inklinazioa, noiz azeleratzen hasi behar nuen... Musika ere arratsalde euritsu hartarako propio aukeratua. Dena, bai, errepide erdira irten zitzaidan zakur madarikatu hura izan ezik.

Zoritzarreko istripu hura izan eta gero bi hilabete pasatu nituen hil ala biziko egoeran, komunerako ere jaikitzen ez nintzela, hezur guztiak hautsita. 60 egun eman nituen sendagile eta erizain uniformedunak baino ikusten ez nituela, beste inor ere ez, pertsona normalik ez behintzat, bisitatuko ninduen

lagunik ere ez bainuen. Eta hori gutxi balitz, gainera, logela hartan ez zegoen telebistarik eta ez zitzaidan iristen futboleko berririk. Benetan etsigarria zen. Azkenerako okerrago neukan burua gorputza baino.

Egun batetik bestera, ordea, egoerak erabat onera egin zuen. Ez pentsa telebistarik ekarri zidatenik, edo futboleko berriak niregana iristen hasi zirenik. Ez. Erizainak esan zidan bazegoela ospitalean funtzionatzen zuen elkarte berezi samar bat, Bisitan izenekoa, eta bertako kideek ospitaleko gaixoei bisitak egiten zizkietela, batik bat inor gabe eta bakarrik zeudenei, eta ea nahi nuen niri ere bisitak egitea. Nik erantzun nion igualean nahiago nuela telebista, baina, beno, besterik ezean... Ez zitzaidan damutu baiezkoa eman izana. Itotzen ari denak flotagailuari heltzen dion bezala besarkatu nituen nik lagun haiek, eta batez ere Julia, inoiz huts egin gabe astearte, ostegun eta larunbatetan etorri zitzaidan emakumea, nire bizitza ilunera argia ekarri zuena. Hitz egin eta hitz egin, gauzak beste era batera ikusten lagundu zidan, ordura arteko bizitza zeinen alferrikakoa eta hutsala izan zen erakutsi zidan. Julia izan zen, nolabait esatearren, galduta nenbilenean itsasertza non zegoen erakutsi zidan itsasargia, harri kozkorra malkoak ateratzeraino bigundu zuena.

Julia izan zen, halaber, hau guztia idaztera akuilatu ninduen, iraganetik beti ikasten omen da-eta zerbait etorkizunari begira. Hasieran nik kontatu eta hark idatzi egiten zuen. Baina azkenerako gogo berotu eta neuk ekin nion idazteari. Paper zuria hartu eta inolako errukirik gabe erraz asko betetzen nituen, gauzak burura etorri ahala idatzi.

Ospitaleko egonaldia, ordea, amaitu zen noizbait eta etxera itzuli behar izan nuen. Han jarraitzen zuen aitak, telebistari begira, ni kanpoan izan nintzen bitartean besterik egin izan ez balu bezala. Eskerrak Irene on puska hura arduratu zen beraz. Etxeko atean barrura egin aurretik gelditu egin nintzen une batean; kontuz ibili ezean gerta zitekeena izan nuen gogoan: atzera telebistaren, futbolaren eta auto beltzen lehengo zulo beltzean amil nintekeen. Tentazioa hainbestekoa zen eta nire borondatea artean hain ahula... Orduan erabaki nuen ospitalean idatzitako paper haiek guztiak hartu eta berriz idaztea, ibiltzeko hankak gaizki baina eskua oraindik ongi baitut eskribatzeko. Eta orduak eta orduak eman nituen horretan, orriak idatzi eta zuzentzen. Eskolako haurrek egiten duten bezala, nik ere oker egindakoa mila aldiz errepikatzen nuen, haiek arbelean eta nik orrialdeotan.

Aurtengoan futbol liga goizago hasi zaigu eta horrek eramangarriagoa egingo dit indarberritzeko behar dudan denboraldia. Gaur, adibidez, Errealaren eta Celtaren arteko partidua daukagu. Norgehiagoka gogorra izango da. Kostatuko zaigu irabaztea eta horretarako gure mutilek denon animoa eta indarra beharko dute. Horregatik, bada ordua kontakizun honenak egiteko, behingoz amaitzeko, partidua lasai ikusi nahi dut-eta aitaren ondoan, telebistaz. Nik zerbeza eta hark ura pastillazoarekin hartuko dugu. Oraingoan, gainera, badaukat partidua telebistaz ikusteko beste arrazoi berezi bat: atsedendian botako duten Jibatsu Super Fast Tiger XR2 32 val. turbo berriaren iragarkia. Ospitalean aldizkari batean ikusi nuen eta hain ederra iruditu zitzaidan, hain piztia, liraina, sendoa, probokazio hutsa...